

## **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Lehendabizi, produktua diseinatu behar dugu bezeroen eskaria ondo betetzeko eta benetan maskara eroso bat eskaintzeko. Batez ere, adin handiko bezeroak arnasteko zailtasunak izaten dituzten horiek dira eta maskara gabe ibiltzeak arrisku handia suposatzen die, hortaz benetan maskara transpirable, kalitatezko eta berrerabilgarri bat diseinatzea garrantzitsua da, produktua ateratzerakoan benetan asmatu eta salmentak izateko.



Bigarren pausoa behin maskararen diseinua zuzena izanda honen fabrikazioaren errentagarritasuna kalkulatzeko da, materialak erostea kostu finko gisa, jostunak kontratatzea eta orduak ordaintzea, leku bat izatea josteko tresna erabilgarriekin (kostu aldakorra)... Behin kalkulaturik, errentagarritasunaren kalkulua egin eta aztertu ondoren, fabrikatzen hasia da.

Hirugarren pausoa, behin fabrikazioa martxan jarrita produktua anuntiatzea da, bezeroak enteratzea benetan zer produktu saltzen dugun, zer eskaintzen diogun, zer preziotan... Adibidez, irratan segundu batzuk erosi eta maskarari buruz hitz egitea, askotan posible izango ditugun bezeroak (adin handikoak) irratia entzuten dutelako.

Eta azken pausoa, herriko farmazia eta parafarmaziekin hitz egin, dendeekin harremanetan jarri eta hauek pedidoak egiten hasia da. Kantitate handitan saltzeko asmoa dugu, 50 eta 100 eko paketetan (100ekoak ofertan) eta azkenik bezeroak herrian bertan aurkituko dituzte maskara hauek, horrela komertzio txikia bultzatuz eta herrian erostea bultzatuz.